

Usurbilgo Udala

2016KO UZTAILAREN 26AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Xuban Zubiria Elexpe
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Irene Garcia Palacios
Jose Mari Iribar Zapirain
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontu-hartzailea: Karmele Lizaso Ubera

Ezin-etorria adierazi du: Miren Josune Estella Arranz-ek

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2016ko uztailaren 26an, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- AURREKO AKTEN ONESPENA:

*** 2016KO APIRILAREN 26KO AKTA.**

Batzarkideek, 2016ko apirilaren 26ko akta aho batez onartu dute.

*** 2016KO MAIATZAREN 10EKO AKTA.**



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, 2016ko maiatzaren 10eko akta gehiengoz onartu dute. Andoni Atxega ez zenez bilkura horretan izan abstenitu egin da.

*** 2016KO MAIATZAREN 31KO AKTA.**

Batzarkideek, 2016ko maiatzaren 31ko akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2016KO EKAINAREN 20TIK UZTAILAREN 15ERA (2016/0603-2016/0721).

Alkatetzak 2016ko ekainaren 20tik uztailaren 15era bitartean (2016/0603– 2016/0721) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- HONDAKINAK KUDEATZEKO EREDU PROPIO BAT GARATZEKO BIDEAN, HONDAKINEN TRATAMENDU ZERBITZUA EMATEKO DAUDEN AUKERAK AZTERTZEA.

Batzarkideek, aho batez, puntua gai-zerrendan sartzea berretsi dute.

Alkateak adierazi du EH Bildu udal taldeak espediente bat abiatzea proposatzen duela, zehazki Usurbilgo hondakinak kudeatzeko eredu propio bat garatzeko dauden aukerak aztertzeko.

Gai honen motibazioa zein den azaldu du. Ikusi dutela dio azken urte eta bereziki azken hilabeteetan Gipuzkoan gaur egungo Foru Aldundiko agintaritzatik, GHK-tik eta San Marko Mankomunitatetik Usurbil bezalako herrien kudeaketa eredia ez dela behar bezala tratatzen. Nolabait erraustegiaren eraikuntza jarri da euren kudeatzeko ardatz gisa eta horrek eragin duena izan da gaikako bilketan ahalegin handia egiten duen Usurbil bezalako herri bat, eredu jasangarrien alde egiten duen herri bat, erabat deseroso sentiaraztea aurrera eraman nahi duten eredu horren aurrean.

Etzi, hilaren 28an onartu nahi direla esan du erraustegiaren eraikuntzarako eta kudeaketarako esleipen ereduak eta hor bertan finkatu nahi dira mozioan aipatzen diren puntu batzuk. Horren aurrean planteatzen dutena da Usurbilgo Udalak bere eredu propioa garatzeko dauden aukerak aztertzea.

Jarraian, hilaren 28an Gipuzkoako Hondakinaren Kontsortzioak erraustegia eraikitzeko onartu nahi duen kontratu-ereduaren ezaugarriak aipatu ditu.

Halaber, proposamenak jasotzen dituen lau puntuak irakurri ditu.



Usurbilgo Udala

Josune Urkolak adierazi du mozio hau aztertzeko denborarik ez dutela izan, ostegunean jaso zutela. Bestalde, testuan jasotzen diren hainbat datu kontrastatu nahiko lituzketela adierazi du. Ondorioz, abstenitu egingo direla esan du.

Fermin Orue-Echevarriak ere esan du ostegunean izan zuela honen berri eta gaineratu du alkateari eskatu diola gai hau irailera arte atzeratzea, baina honek ezinezkoa dela erantzun diola esan du. Gaia aztertzeko denbora gehiago behar duela esan du. Proposamenean aipatzen dela dio batzorde horri bi hilabeteko epea ematen zaiola eta galdetu du ea gaurtik kontaktzen hasita den epe hori.


Alkateak erantzun dio bi hilabeteko epe hori batzordea eratzen denetik dela, iruditzen baitzaie gai honek lanketa azkarra behar duela.

Azpimarratu du gaur hemen hartzen den erabakia ez dela inola ere atzera ezinezko kontu bat, izan ere proposatzen dutena baita azterketa bat abiatzea. Ikusirik Usurbilgo ereduaren eta gaur egungo Gipuzkoako aginteak proposatzen duenaren artean hain talka nabarmena dagoela zilegi dela Usurbilek bere bide propioa egiteko aukerak aztertzea. Udalbatzari eskatzen zaiona da azterketa hori egiteko baliabideak mahai gainean jartzea.

Hemen bide baten aldeko autua ez dela egiten esan du, baizik eta azterketa baten aldekoa.

Publikotik pertsona batek hitza hartu du eta eskerrak eman dizkio Udalari hartzen duen erabaki hau oso gakoa baita hondakinen geroari begira. Behin eta berriz Europa aipatzen da eta lehen ere Europari begira herri honek demostratu zuen badaudela gaikako bilketa askoz ere eraginkorragoak, eta errealitatea hor dagoela esan du, 2008an %28ko gaikako bilketa zegoen herrian eta gaur egun ia %84koa da. Bilketan bezalaxe tratamenduan ere gauza bera gertatuko dela adierazi du, Europan errausketa ez den esperientzia onak eta askoz jasangarriagoak eta eraginkorragoak baitaude ingurumenaren eta ekonomiaren aldetik. Hori aztertu eta frogatu egin behar da eta herri honek lehen ere horrela erakutsi zuela dio, egingarria dela.

Publikotik beste pertsona batek batzarkide guztiei eskatu die herri honen interesen alde egiteko, eta bereziki PNV eta PSEko kideei eskatu die beste behin ez galtzeko aukera hori. Alderdikeriak baztertzeko eta herri honen interesei lehentasuna emateko eskatu die. Halaber, abstenitzeko aitzakia merkeak ez erabiltzea eskatu die. Mahai gainean dagoena oso garbi dagoela uste du, argumentuak ere garbi daudela eta adierazi du erraustegiaren egitasmo hori oso kaltegarria dela Usurbilentzat alde guztietatik, osasunaren aldetik, ingurumenaren aldetik eta baita ere ekonomiaren aldetik.



Usurbilgo Udala

Proposamena aztertu ondoren, batzarkideek, gehiengoz onartu dute, honela dio erabakiak:

“Espediente zkia: ID.02/2016-0380

Hiri hondakinak kudeatzeko modua adostu ezinda dabil Gipuzkoa azken urte luzeetan. Modu sinplean azalduta, bi ereduren arteko talka azaleratu da: batean, erraustegia ezinbesteko azpiegituretat hartzen da; bestean, erraustegirik gabeko eredu baten alde egiten da, murriztea, berrerabiltzea, eta birziklatzea ardatz hartuta.

Eztabaida bizi-bizi dagoela, *2002-2016 Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrari* (GHHKPOri) iritsi zaio iraungitze-data. Bukatu da aurreko plana; horregatik 2017-2030 epealdirako planaren diseinua ekarri du Foru Aldundiak Gipuzkoako agendara. Epemuga horrek aukera bat dakar: gipuzkoarrok abagune berri bat dugu hondakinen politika lantzeko eta adosteko.

Bien bitartean, ordea, erraustegia eraikitzeke egitasmoari bere horretan eusten dio gaur egungo Foru Aldundiaren gobernu-taldeak, premiazko prozedurak azken muturreraino behartuta.

Bide bihurri horretan, azpimarratzekoak dira Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak erraustegia eraikitzeke onartu nahi duen kontratu-eredua eta horren araberrako baldintzak. Hona hemen ezaugarri batzuk:

- Enpresa-elkarte bati esleituko zaizkio erraustegiaren eraikuntza, martxan edukitzea, mantentzea, eta bestelako finantza-gastuak.
- 35 urtetan ordainduko zaizkio enpresari bere zerbitzuak. Epe horretan enpresak ez du inolako arriskurik hartzen eta irabaziak guztiz bermatuta dauzka. Zama guztia gipuzkoarrok ordainduko dugu. Gainera, edozein dela ere hondakinen bilakaera, loturaren baldintzek ez dute atzera bueltarik.
- Disponibilitatearen arabera ordainduko zaio enpresari. Urtero ordaindu beharreko 32 milioi eurotatik 29 (% 90etik gora) erabilgarri egoteagatik ordainduko dira, eta gainontzekoa eramaten diren tonen arabera. Hau da, biztanleka egingo da ordaindu beharrekoaren kalkulua, zenbat birziklatzen den ia aintzat hartu gabe. Jakina, horrek birziklatzen dugun herriok kalte egiten gaitu, eta galdera gaizto bat elikatzen du: zertarako birziklatu? Azken urteotan Gipuzkoan landu den joera eredugarria zapuztu egiten du.
- Denera, 1568 milioiko dirutza da lizitazioan onartuko dena, eta horietatik 1407 milioi administrazioak jarriko ditu.
- Esklusibitatearen printzipioa aplikatuta, herri guztietako hondakinak Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren esku uztera derrigortzen gaituzte. Derrigorra da, ez aukera. Hala, geure eredu propioa garatzeko eskubidea ukatu egiten digute.
- Beraz, herritarrok jasango ditugu erraustegiaren ondorio kaltegarriak, larrutik ordainduko dugu, eta gainera ez dugu aukerarik izango bestelako ereduak martxan jartzeko.



Usurbilgo Udala

Testuinguru honetan, Usurbilek eredu jasangarri baten aldeko apustua egin du eta, zero zabor bidearekin konpromisoa hartuta, urrats sendoak egiten ari da norabide horretan. Baina, San Marko Mankomunitatearen kide baikara, behin eta berriz ikusi dugu mankomunitateak ez diola gure ereduari erantzuten, eta, are okerragoa dena, jasoz ez ditugun zerbitzuak ere ordainarazten dizkigula.

Horrenbestez, ikusirik Usurbilek ez daukala toki egokirik gaur egungo Gipuzkoako hondakinen arkitektura instituzionalean, eta herritarren aurrean dugun arduragatik eta zor diegun begiruneagatik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Usurbilgo Udalak Usurbilgo hondakinen tratamendua bideratzeko azterketa integrala, aspektu sozial, juridiko, tekniko eta ekonomikoa landuko dituen espedienteari hasiera ematea. Azterketa horrek gaur egun San Marko Mankomunitateko kide gisa ematen den zerbitzua Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 legeak 85.artikuluaren aurreikusten dituen kudeaketa sistemetako baten bidez (zuzeneko edo zeharkako) ordezkatzeko aukera eta bideak aztertuko ditu.

BIGARRENA: horretarako, azterketa-batzorde bat eratzea, hondakinen tratamenduaren inguruko alderdi sozial, juridiko, tekniko eta finantzarioari buruzko azterketa egin dezan eta memoria bat presta dezan, bi hilabeteko epean, gehienez ere, Toki Araubideari dagokionez indarrean dauden lege xedapenen testu Bateginaren 97. artikuluan xedatutako betetze aldera. Batzorde horretako zinegotzi eta teknikari kideak dekretu bidez izendatuko dira.

HIRUGARRENA: 2017-2030 epealdirako Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra diseinatzeko abagunea iritsi dela probestuz, eta Usurbilek ere Hondakinen tratamendurako beste eredu baten azterketa abian jarriko duela kontuan harturik, Zubietan eraiki nahi den Erraustegiaren esleitze prozeduraren moratoria eskatzea


LAUGARRENA: erabaki hau Gipuzkoako Foru Aldundiari eta San Markos-eko Mankomunitateari jakinaraztea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko bozkak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia gehiengoz hartua izan da.



Usurbilgo Udala

4.- GALDERA-ESKAERAK.

Andoni Atxegak udal funtzionamenduari dagokion eskaera bat luzatu du. Batzordeetara bertaratzeagatik egiten diren ordainketak ia hilabete guztietan gaizki datozela adierazi du. Beti ematen zaien erantzuna dela dio idazkariak ez dutela garaiz bidaltzen akta jakiteko zein zinegotzik parte hartu duten bilkuretan. Arazoa konpontzea eskatu du.

Batzordeetako idazkariei jakinaraziko zaiela esan zaio.

Alkateak, amaitzeko, aurreko puntuan aipatutako batzordearen eraketa irailean egingo dela adierazi du eta bertan parte hartzera gonbidatu ditu.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:20ean eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.